

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2. MAILA (B2)

Azterketa idatzia

A

EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak **bi zati** izango ditu

- Irakurmena
- Idazmena

Eta **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu osorik egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposatutako denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	10	20	45 min inguru
	Idazmena	15	30	60 min inguru
	Irakurmena eta idazmena	25	50	1 h 45 min

2010eko bigarren deialdia



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. TESTUA

Katalunian sortu den eztabaidari buruzko artikulua irakurri.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondoren idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala.

Zezen-plaza ixtear?

Festa eta kultura dira batzuen ustez; beste batzuen iritziz tortura onartezina. Zezenketen aldekoak zein kontrakoak daude Herrialde Katalanetan, beste herrialde batzuetan bezala. Baina zezenketak, gaur egunean, egin egiten dira. Ordea, hori aldatzeko aukera gertuago egon liteke orain. Izan ere, zezenketak debekatzeko, Kataluniako Parlamentuan aurkeztutako herri ekimen bati baiezkota eman berri dio diputatu gehiengoak. Dena den, ekimenak bide luzea du oraindik lege bihurtu arte.

Prou! plataformak aurkeztu du ekimen legegilea, zezenketak debekatzearen aldeko sinadura eman duten 180.000 herritarren babesarekin; ekimena aurkezteko behar zituzten sinaduren hirukoitza, hain justu. Zezenketen aldeko elkarteak, ordea, ez daude etsia hartzeko prest eta “partida” amaitzeko asko falta dela adierazten dute.

Zezenketen kontrako ekimenak ez dira atzo goizekoak, eta azkeneko honen sustatzaileek eskatzen dutena da Animaliak Babesteko Kataluniako Legea aldatzeko. Horrela “zezenketak eta animalia hiltzea dakarten ikuskizunak” debekatzeko. Hala ere, “*correbous*” deritzonak bazter utzi dituzte -zezenari adarretan sua darion gailua jarri eta kaleetatik askatzean datza, eta Kataluniako zenbait herritan tradizio handia dauka-. Ekimenak aurrera eginez gero, Bartzelonako Monumental zezen-plazari eragingo lioke bereziki, Katalunia osoan jardunean den bakarra baita.

Parlamentuaren bozketaren aurreko asteetan eztabaida latza piztu da. Auziak hedabideetan izan duen oihartzunaren erakusle izan zen atzoko bozketa. Izan ere, bozketa sekretua izan zen, eta hori ez da batere ohikoa Kataluniako Parlamentuan. Are gehiago, bozkatzeko orduan diputatu bat baino gehiago ezkutatu zen egunkari baten atzean, argazki “konprometitua” saiheste aldera.

Ainhoa Sarasola (*Berria*. 09-12-19. Moldatuta)

Adibidea:

0. *Zein jarrera dute Katalunian zezenketen aurrean?*
 - a) *Gehiago dira zezenen aldekoak aurkakoak baino.*
 - b) *Gehienen ustez zezenak kultura-adierazgarri dira.*
 - c) *Zezenen aldekoak zein kontrakoak daude.*
1. *Zer gertatuko da Parlamentuan onartutakoarekin?*
 - a) *Hemendik aurrera zezenketak debekatu egingo dira.*
 - b) *Bide luzea egin beharko du lege bihurtu arte.*
 - c) *Gutxi falta da zezenketak betiko debekatzeko.*
2. *Zer lortu dute Prou! plataformakoek?*
 - a) *Behar zituzten sinadurak justu-justu lortu dituzte.*
 - b) *Legea aldatzea lortu dute.*
 - c) *Behar zituzten sinadurak baino askoz gehiago lortu dituzte.*
3. *Zein ondorio izango lituzke lege-aldaketak?*
 - a) *Animaliek parte hartzen duten ikuskizunak debekatzea.*
 - b) *Animaliak ikuskizunetan hiltzea debekatzea.*
 - c) *Herri batzuetako "correbous" izenekoak baztertuta gelditzea.*
4. *Zer eragin du Parlamentuaren bozketak?*
 - a) *Eztabaida sutsuak komunikabideetan.*
 - b) *Pertsona batzuek auzitegietara jotzea.*
 - c) *Oihartzun handia ondorengo asteetan.*
5. *Zer gertatu zen bozketaren egunean?*
 - a) *Ez zen argazkirik onartu.*
 - b) *Batzuek ez zuten bere botoa agertzerik nahi izan.*
 - c) *Banan-banan eman zuten botoa parlamentarioek.*

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- C	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----

2. TESTUA

Elhuyar aldizkarian argitaratutako artikulu bat irakurriko duzu.

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Idatzi testuko zatien **letrak laukietan**, adibidean egiten den bezala.

BIGOREXIA

Bigorexia deituriko gaixotasuna edo patologia 1993an diagnostikatu zuen lehen aldiz Estatu Batuetako Harrison Pope psikiatruk, Harvardeko Medikuntza Fakultatean. Eritasun hau jasaten duen pertsonaren gorputza giharra izaten da batez ere. Normalean, _____ **0** _____.

Geroz eta gihartsuago egoteko eta horri eutsi ahal izateko, hainbat bide erabiltzen ditu. Gimnasioan ordu ugari ematen ditu egunero, ia bigarren etxea bilakatzera. Modu obsesiboan egiten du kirola. Tamalez, _____ **1** _____. Egun batean gimnasia joan gabe geratuz gero, egonezina izaten du, horrek gihar-bolumena galtzea eragingo diola pentsatzen baitu.

Elikadurari dagokionez, _____ **2** _____. Arrautza egosiaren zuringo asko jaten ditu -20 arrautza-zuringo jan ditzake egunean-, gantz gutxien duten haragi eta arrainak, esneki gaingabetuak... Helburua geroz eta gorputz gihartsuago eta indartsuagoa lortzea da.

Dieta desorekatua egiteaz gain, gihar-masaren ekoizpena handitzeko esteroideak eta anabolizanteak hartzen ditu, eta horiek oso ondorio kaltegarriak dituzte: _____ **3** _____.

Neurri horiek guztiak hartu eta jendearen begietara gihar gehiegi izan arren, bigorexia duena ez da horretaz ohartzen, eta ez du inoiz bere burua nahiko gihartsu ikusten. Argi dago, beraz, beste elikadura-nahaste batzuetan bezala, _____ **4** _____. Eragileetako bat gizarteak modu batera edo bestera inposatzen dituen gorputz-irudien patroiak dira.

Gizonezkoetan emakumezkoetan baino ugariagoa da gaixotasun hau, eta batez ere kulturismoa egiten dutenen artean zabaldu da, _____ **5** _____. Ikerketek diotenez, gimnasia maiz joaten diren pertsonen %10ek izaten ditu horrelako arazoak.

_____ **6** _____: autoestimutxikia, izaera itxia, heldutasun falta, gizartean integratzeko arazoak, depresioa... Gainera, bizitza nolabaiteko erritual bilakatzen du: egunean zehar zer jan antolatuta, oso maiz pisatzen da, etengabe begiratzen dio ispiluari zenbat gihar irabazi edo galdu duen egiaztatzeko.

Bigorexiak, ondorio psikologikoen gainera, lehen aipatu ditugun anabolizanteen ondorio fisiko eta estetiko ugari ere baditu: _____ **7** _____. Gainera, dieta izugarri desorekatzen denez, gibelak eta giltzurrunek izugarrizko lana egin behar izaten dute proteinen hondakinak kanporatu ahal izateko. Beraz, ez da harrizkoa kalteak izatea bi organo horietan.

Tratamendu nagusia psikologikoa da. _____ **8** _____. Bestetik, eta tratamendu psikologikoarekin batera, dieta orekatua zein den jakiteko eta hori egin ahal izateko oinarriak ezartzeko oso beharrezkoa da elikaduraren arloko heziketa.

Elhuyar aldizkaria (2004/04/01)

Lotu testu zatiak hutsuneekin. Idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala.

- A.- gorputzaren eta buruaren arteko proportzio eza, hezur eta artikulazioetako arazoak, arintasun falta, tendoi laburragoak ...
- B.- anorexia eta bulimia esaterako, gorputzaren irudiarekin erlazionatutako arazoa dela
- C.- bigorexia duenak izugarri handitzen du dietako proteina kantitatea
- D.- kasu horretan kirolaren helburua ez da izaten osasuntsuago egotea, baizik eta gihar gehiago izatea
- E.- Pertsona horren autoestimua handitu behar da, eta gorputza den bezalakoa onartzen eta maitatzen ikasi
- F.- gaixoak oso argal ikusten du bere burua eta gorputz gihartsua izatea obsesio eta helburu nagusi bilakatzen da**
- G.- bihotz eta zirkulazio gaixotasunak izateko arriskua handitzen dute, gibelego arazoak, barrabilen tamaina txikitzen dute, erektzio-arazoak sortu, eta prostatako minbizia izateko arriskua handitu
- H.- nahiz eta horrek ez duen esan nahi kirol hori egiten duten guztiak gaixo daudenik
- I.- Bigorexia duen pertsonaren ezaugarri psikologikoak beste elikadura-nahasteak dituztenen ezaugarrien oso antzekoak izaten dira

Aukeratu testu zatiak eta idatzi letrak laukietan, adibidean egiten den bezala.

0.- F	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-
--------------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

3. TESTUA

Joxe Rojasek *Aizu!* aldizkarian idatzitako artikulu bat irakurriko duzu.

Non hago?

(1. paragrafoa) “*Nun* hago, zer larretan, Urepeleko artzaina?”. Horixe Xabier Leteren zalantza. Nago ni ez duela benetan jakin nahi; bestela Googleri galdetu eta berak erantzungo lioke di-da: “*Hurrengo biribilgunean, segi ezkerretara, hirugarren irteera*”. Eta hantxe, edo ez oso urrun ibiliko da, seguru.

(2. paragrafoa) Honezkero jakingo duzue, bada, Googlek zerbitzu berria erantsi diola bere eskaintzari: *Latitude* izenekoa. Telefonia eta Wi-Fi antena nagusien kokapenean oinarrituta, *Latitude* berria edozein segapotoren kokapena atzemateko gauza da, baina hori bai, beti ere erabiltzailearen alde zuzena da. “*Ez izan gaiztoa*”, horixe omen da Googleren lehen mandamendua.

(3. paragrafoa) Eta tira, beharbada bai, agian izango dira oso jatorrak, eta ez dute inor lokalizatuko haren alde zuzena izan barik. Baina, ai, publiko handiari zerbitzu hori eskaintzeko aukera teknikoak badute... Zer egin ahal izango dute etxe barruan, bezero pribilegiatu, handi eta boteretsuen eskariz? Noizdanik dira gutako bakoitza non dagoen jakiteko gauza? Zer gehiago jakin dezakete gu konturatu gabe?

(4. paragrafoa) Eta, txarrena dena, zenbat denbora beharko dute guri buruz horrenbeste jakitea normaltzat jo dezagun? Ez da oso zaila imajinatzea, esate baterako, hemendik hilabete batzuetara fabrikatzen diren sakelako telefono askotan *Latitude* hori ezer adierazi gabe aktibatuta etortzea, eta horren jakinarazpena inork irakurtzen ez dituen lizentzia mardul horietako puntu ezkuturen batean egotea. Badakizue: “*Telefono hau erabilia, erabiltzaileak onartzen du badela A eta B eta Cren jakitun, eta baimena ematen dio fabrikanteari D eta E eta F egin ditzan*”, “*ez zabaldu kutxa hau lizentziarekin ados ez bazaude*” eta enparauak...



(5. paragrafoa) *Alter ego* paranoikoari lasaitzeko pilula emanda ere, panorama ez da askoz ere lasaigarriagoa: Google publizitate enpresa bat da azken finean, eta gure kokapenean berri publizitatea hobeto saltzeko baino ez du nahi, akaso. Herriko Telepiztatik gertu gabiltzanean, euro pare bateko deskontu birtuala helarazi nahi digu, seguruenik, pizzeriaren salmentak igo eta bide batez publizitate sarrerak handitzeko asmoz... Ikusi al duzue *Minority Report*? Bada, horrelako zer edo zer, baina inoren erretina eskaneatu beharrik gabe. Edonola ere, ileak lazteko moduko perspektiba, ezta?

JOXE ROJAS

aizu! 2009ko martxo

1. egitekoa

Irakurri testua eta ondorengo galderari erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena. Idatzi **letra** laukian.

Aukera hauek zeinek islatzen du ondoen Joxe Rojasek testu honetan adierazi nahi duena?

- a. Gutariko edonor edozein momentutan non dagoen eta kontrolatua izateko aukera zabaltzen du *latitude* izeneko eskaintzak. Horrekin guregana edozein gauza helaraz dezakete.
- b. Edozein segapotoarekin Wi-Fi antenen bidez harremanetan jartzeko aukera eta edozein leku eta egoeratan ere komunikatzeko aukera zabaltzen da.
- c. Sakelako telefonoa erosten dugunean, kontu handiz irakurri behar ditugu baldintza guztiak. Bestela, baten batek ziria sartzeko arriskua daukagu.

Idatzi laukian erantzun zuzena:

2. egitekoa

Testuan **hitza** aurkitu.

Ondoren 4 azalpen irakurriko dituzu. Azalpenari dagokion **hitza** testuan aurkitu behar duzu. Gero hitza laukian idatzi.

0 adibidea da.

Adibidea:

0. (2. paragrafoan)

Aldean eramaten dugun telefonoa.

segapotoa

1. (2. paragrafoan)

Lehendik zegoenari zerbait gehitu.

2. (4. paragrafoan)

Berri-ematea, adierazpena

3. (4. paragrafoan)

Jakinaren gainean egon.

4. (5. paragrafoan)

Bidali, igorri

IDAZMENA

Egitekoa

Jarraian, iritzi-artikulu bat idazteko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - eskatutakoari erantzun diozun
 - testu egokia osatu duzun
 - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)

Aukeran dituzun bi gaietatik **bat egin** behar duzu.

1. gaia

Egunkari batean iritzi-artikulua idatzi behar duzu. Horretarako aukeratu duzun gaia hauxe da:

DONOSTIAKO UDALAK KALEAN BILUZIK IBILTZEA DEBEKATU DU.

Idatzi zure iritzia. Horretarako, zure esperientzian edo ingurukoenean oinarrituta, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu**:

- ✦ Zergatik hartu dute erabaki hori?
- ✦ Erabaki horren alde onak eta txarrak.
- ✦ Leku guztietan berdin jokatu behar da?
- ✦ Gaurko ikuspegia eta iraganekoa.
- ✦ Non daude mugak?



2. gaia

Herri-aldizkarian zuen herrian albiste izan den zerbaiti buruz iritzia eman behar duzu. Oraingo honetan albistea hauxe izan da:

Herriko kaleetan CDak saltzen zituen paperik gabekoa epaitu egingo dute.

Idatzi zure iritzia. Horretarako, zure esperientzian edo ingurukoenean oinarrituta, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu**:

- ✦ Zer iruditzen zaizu berri hau?
- ✦ Herri batzuetan horrelakoak aparteko auzo batera eramatea proposatu dute.
- ✦ Horrelakorik erosi ohi duzu?
- ✦ Zein dira merkatu honen ondorioak?
- ✦ Egileen kexak bidezkoak dira?



Gaia:

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50

55

60

65

70

75
